

BELTZAK ETA ZURIAK

Eguneroko histori beltz bat

RIKARDO ARREGI

Ba dira berri batzuek egun geienetan egunerokoetan ikusten ditugunak naiz eta iskiñi batean eta letra txikiakin egon. Oietako bat Estatu Batuetan beltzak daramakiten burruka.

Bildur dut gai onetaz itzegitea. Errezegia delako. Topiko bat delako. Politogia delako jantziak urratuak eta deadar bizian: ori da injustizia esatea! Ala ere gertakizun oietaz pentsatu bearrean arkitzen gera, baiñan ez urrutiko gauz batzuek ba lira bezela, geren buruak prolemaren barru barruan sartuta baizik.

iritzi batzuek zuzendu bear ditugula aitortzen. Asi gaitzen aitortuaz europear bezela beltzen eta afrikanoen aurrean geiago gerala uste dugula. Joera dugula, esate baterako, Kongo'n zerbait gertatu dala ta, beltzak zerbait gogorra egin dutela ta: Salbaje koskor oiekl pentsatzea. Askotan beltzen abertzaletasun guztia komunismoarekin nahastzen dugula. Mixiolari batzuek iltzen dituztela ta zero asarritzen gera. Zuriak berriz millaka ta millaka beltzak ill zituzten bere kolonizazioan eta oietaz gogoratu ere ez gera egiten eta okerragoa damurik ere ez.

irudi bat dugu ta irudi ori europarra da edo gutxienean okzidentalak. Irudi orrekin bat ez datorren demokrazia gezurretzakoa dala esaten dugu. Saiatu ote gera afrikano askoen sozialismoa nolako dan aztertzen. Estatu askoetan partidu bakarra dago zergatik dagon pentsatzen. Bai ba dakigu afrikanoen artean ez dela dena ona baiñan gizon eta gizarte guztiak berdintasunarekin azertu ditzagun eta guretakoak egindako astakeriak aitortu ditzagun. Ta ez gaitzela Europa ta kristautasuna gauza berdiña diradela siñisteko tentazioan erori. Bein batekoz gure buruetan sartu dezagun europarrak kristautasunetik urrutiegi ibilli gerala beste lezioak ematen ibiltzeko.

ZURIEN AZTERKETA
BELTZA

AFRIKANOEN
SOZIALISMOA

Lenengoz asi gaitzen gure Dударik ez demokraziaren

IKASGAI EDERRA



NAZIO-ARTEKO UNEA

Egiari bildurra

EZ dakigu itz auek argitaratzerakoan Vietnam'go gora berekar zertan izango diran, gerra zabalduko ote dan edo ez. Era guztietara astebete ontan Vietnam'en gertatukoetzaz iritzirik eman gabe ezin gindezke gelditu.

Viet-cong delakoak, au da, Ego Vietnam'en dabilzian guerrillero progresistak eta geienetan komunistak Ego Vietnam'en dauden militar amerikano batzuek ill dituztela ta Ipar Vietnam'go erri batzuek bonbardeatu dituzte. Alegia Ipar-vietnamdarrak omen dira Viet-cong'koel laguntzen eta alek zigortzea izango dala onena pentsatu dute amerikano pentsalari sakonak. Baiñan zerbait pentsatu dezagun.

Viet-cong delakoan dabilzian eunetik larogei ta amabost egovietnamdarrak dira. Beraz bere etxean arkitzen dira. Bestaldetik berriz amerikanoak berak aitortzen dute guerrilla oiek irau lezatekla luzaroan kanpoko laguntzarik gabe. Gaiñera Saigon'en dagon gobernuak —gobernurik baldin badago— bere gobernatuen artean 30%ko laguntza ta konformidatea bakarrik daukate. Amerikanoak berriz etxetik kanpora arkitzen dira. Erri guztiak onartzen ez duan gobernu bati laguntzen. Noiztik nora etsalen laguntzailek errespetatu bear dira? Gaiñera, amerikanoak bezelako laguntzaileak, armak eta ejerzitauk ematen ditun laguntzaileak balda.

Amerikanoek egindakoa inundi ere defenditzerik ez dago. Kolonialismoa defenditu nai ez baldin badugu beñepeñi, prestijioagatik gerrara joan litekela defenditu nai ez baldin badugu beñepeñi, mundua bi jauntxoena bakarrik dala defenditu nai ez baldin badugu beñepeñi.

Baiñan amerikanoak andik aldegiten baldin badute komunismoa egingo omen litekete an jaun eta jabe. Egia ote? Aspalditik esana dago ango gora beherak neutralismoaren barruan konpondu litekela. Baiñan zoritzarrez ba dira pentsamentu estuokoak eta oriantzikan ere "edo nerekin edo nere kontra" esaten dutenak. Estatu Batuek bere nala ezarri nai izan dute Vietnam'en baiñan gerta liteke esorkerik ezarek azkenen lurralde guzti alek komunisten eskuetan utzi bearra ekartzea.

Eta guri zer? Ba dauzkagu emen naioko prolema ango porlematzaz orain itzegiten jarraituko. Onela itzegiten duna ez da konturatzan zenbaiterainoko garrantzia duten an gertatzen ari direnak. Zergatik? In estabaldatzen ari dana auxe da, ea prolemak indarraren bidez edo arrazoiaren bidez konpondu bear diran. Ea indar geienak duen arrazoi edo ez. Eta ez dezagun ukatu galdera onen erantzunak ez daukala gurekin zer ikusirik.

Es kubide bat daukanak eskubide ori betetzen ez baldin bada eskatzeko obligazioa du, eskubide ori bereganatzeko burruka egiteko obligazioa dauka. Ortan ematen digute ejenplua Estatu Batuetako beltzak. Bere gizon eskubideak besterik ez dituzte eskatzen. Eta ortan ari dira, egunero egunero burrukan. Ba dugu naioki ikasi bearra.

Mundu guztian, alderdi guzti-tietan badira prolemak eta go-

gorrak gaiñera. Prolema oien aurrean batzuek eskuak tolestatu ta geldik geratzen dira. Beste batzuek berriz burruka egiten dute. Guk oiek, emengo ta angoekin, solidario izan bear dugu, bat izan bear dugu.

Onela zion Theillar de Charadin jakintsuak «Benetan arrigarriri ta nekosua da ikustea gizadi guztia bi zatitan erdibitua. Batzuek urrutira, aurrera begira daudenak eta neophituen fedea-

ren «bai bagoaz, aurrera goaz» esaten dutenak. Besteak berriz bere lekutik mugitu nai ezin «Ez da ezer aldatuko danik; ez gera mugituko» esaten dutenak. Neophito oietakoak izan gaitzen. Ez aurrerapena, progresismoa besterik gabe maite izateagatik. Gizona maite dugulako baizik, gizonarengan siñisten dugulako. Ta gizonarengan siñistea gizona obetu litekela siñistea delako.

Peru'ko arratnzuak

Txitean potean entzuten dogu alemandarren ekonomia miraria.

Izan be merezi dau aitatzea laterri orren buru jasoteak. Aintzat etsaien errian austu ta birrindu eben erria ogei urte baño len Europa'ko erri guztien gañetik kurruku jo al izatera eldu da.

Olakorik sarri ez da gertau. Baña mundu zear beste mirari bat be gertau da. Mirari au itxasogazkoa da arrantzakoa; ta mirari orren egile ego Ameriketako Peru nazioñi txikia.

1963 garren urteko arrain zuebakiak diñonez (igazkorik ez dogu ikusi oraindik) Peru izan da mundu guztian arrain geien atrapau daben laterria.

Aurreko urteetan bigarren ibilli izan da, Japon'en urrengo; ta azkenerako elanai aurrea artzea lortu dau.

Munduko gorengoak arrain kontuan onet'ek dira: Japon, Errusi, Txina Gorria, ta Ipar Amerika. Ta, ja-kiña, danen gain Peru.

Dakigun lez nazioñi orrek, Peru ez besteak andiak dira, batzuk ikaragarriak be bai.

Japon ek 94 milioi biztanle dauka.

Errusi'k 200 milioit'ik gora.

Txina Gorria'k 670 milioi.

Ipar Amerika'k 184 milioi.

Ta Peru'k 11 milioi baino ez.

Ipotza erraldioen ondoan, enanua jigantien alboan.

Baña au arrigarria izan da be ba-dago beste zerbait arrigarriagoa. Zera... gorengo malla orretara, ezezetetik asi ta gabetik gozera eldu dala.

1930 garren urteratek ez egoan an ezer itxasokorik. Baña norbait'ek begi argia euki eban ta arrantzak an euki eikean etorkizunagaz konturatu.

Urte orretan jarri ziran arrain industria sortzeko zimenduak, bazkun bat sortuaz.

Ta ontziak egin, frigorifikak jarri, transportea egokitu ta abar egiteari ekin eutsen.

Asiera sarritan jasoten dana, erkiña izan eban. Ta,

ziur, guda nagusia etorri ez balitz ez eban errez bururik jasoko. Perutarrek geienak ez euken federik arrañaren etorki zunagaz.

Baña gudari eskerrak (gudari eskerrak, zer esan dot nik?) asi zan tiki-taka ibiltzen. Gero beti aurrera joan da.

Baña benetako gorabidean EFLP garren urtean sartu zan arrain uruna (irina) egiten asi zanean.

Uruna, geiena, ant-xobeta deitzen dautsen gure ant-xoba antzeka ta txikiagoa dan arrañagaz egiten dabe. Ikaragarriko onetariko arrain pilloa batzen ei da ango itxasoetan.

Peru'k zelako gorakada egin daben konturatu gaitzan zenbaki oneik irakurtea naiu da:

1956 garren urtean 119.728 tonelada arrain atrapau ziran an, eta 1961 garren urtean 5.243.100 tonelada. ¡Ori da gorakada!

Bost milioi ta apur orretan geiena ant-xobeta izan zan, ta berau len esan dogunez uruna egiteko izaten da.

Egia, emendik beste ondoren au atara daiteke. Peru, ziur, ez da lenegoa izango munduan arrañaren balioa kontuan artuta, dituan kontautu.

Baña ala be danak ao batez esango dabe Peru'k egin dabena arrain, arazoan inorik ez dabela sekula egin.

¡Ederto Peru!

Ta amitezko ituan bat.

Peru'ko orrek irakatsirik ete dakar guretzat?

Ni ezeztean nago. Emen ez dago ango arrain ugari-tasunik. Egia, inoiz emen be geiegi lez izaten da ta olakoetan arrain urun fabriketara eroan oi da. Baña noizik beingo ugari-tasunagaz ez dago ezer.

¡Al Ta ia aztu yatan. Zenbakiak ez naz gogoratzan, baña lenengo jarri danean zazpi milioi tonelada inguru atrapauko zituan.

KAMINAZPI